

Alfonbra berria

Orain kontatu behar dizuedan istorio hau Larrabetzun gertatutakoa omen da, eta niri kontatu zidaten bezala, hitz bakar bat ere aldatu gabe, errepikatuko dizuet.

Itxura denez, Joanjoren eta Marisaren etxean egongelako alfonbra zaharkitu samarra zegoen, eta beste bat erosteko asmoa zeukaten aspalditik, baina badakizue... gerorako utzi eta gerorako utzi...



- Gaur bertan erosi behar dugu alfonbra berria –esan zion Marisak Joanjori halako batean-. Zoaz Bilbora, alfonbra persiarrak saltzen dituzten dendara, eta eros ezazu bat.

Joanjo berrogei urtetik gorako gizona zen, sudurra kakoduna zuen, eta metalezko betaurreko txiki batzuk, sudur handi samarraren gainean. Marisa ere berrogei urtetik gorako emakumea zen, ilea gorriz tindatutakoa eta jenio bizikoa.

Horretan ari zirela, Anartz eta Aiora, Joanjo eta Marisaren seme-alabak, etorri ziren. Anartz bederatzi urteko mutikoa zen, amaren antz handikoa, sudur-motza eta ile kizkurduna, kolore argikoa. Larruazala ere argia zuen, pekaz eta orbanez betea, Marisak bezalaxe. Aiora, berriz, hamaika urteko neska-motza zen, nahikoa beltzarana eta ile ilunekoa; ez aitak bezain beltza, baina amak baino askoz ilunagoa.

- Nik lagunduko dizut alfonbra aukeratzen –esan zion Aiorak aitari.
- Ederki, Aiora. Eskerrik asko –esan zion aitak, baina ez zirudien oso gustura zegoenik laguntza horrekin.
- Aiorak zurekin joan behar badu, nik ere zurekin joan nahi dut –Anartzek.
- Inbidix! –esan zion Aiorak, mingaina atereaz.
- Tuntuna!
- Nahikoa da! –egin zuen oihu aitak-. Biok nirekin oraintxe bertan. Goazen!

Hirurak Bilbo aldera joan ziren, hiriaren sarrerako saltoki erraldoi horietako batera. Lantegi itxurako etxetzar batean "Alfonbra persiarrak" jartzen zuen kartel handi batek. Barrura sartu zirenean, zeharo txundituta geratu ziren, umeak batik bat. Lurzorutik hasi eta ia goiko sabairano alfonbraz beteta zegoen denda guztia. Saltzailea eskailera handi batzuetan bezala ibiltzen zen, oinutsik, alfonbra pila batzuetatik beste batzuetara.

Autoan istiluka ibili baziren ere, dendan sartu bezain azkar adiskidetu ziren anai-arrebak.

- Goazen alfonbra arabiarretara jolastera –esan zuen Aiorak.
- Alfonbra arabiarretara? –Anartzek.
- Bai, motel! Alfonbra hegalarrietara...

Anartz eta Aiora alfonbra gorri-laranja baten gainean jarri ziren eserita, Aiora aurrean eta Anartz atzean.

- Eraman gaitzazu etxera –esan zuen Aiorak.

Eta alfonbra, mantso-mantso, airean abiatu zen, dendako ate irekitik atera, eta zeru urdina zeharkatuz, ekialdeko bidea hartu zuen.

- Hegan ari gara! –esan zuen Aiorak.
- Ai...ai...ai... aita! –hasi zen totelka Anartz.
- Etxera ziztu bizian –esan zuen Aiorak, zeharo ikaratuta.

Eta alfonbra ziztu bizian abiatu zen, beti ekialdera, zuzen-zuzenean.

Aiorak eta Anartzek eztarriko zuloan korapilo handia zuten ordurako. Begiak itxi eta oihu egin zuten:

- Amaaaaa!

Halako batean, alfonbra lurreratu egin zen. Han inguruan eraikuntza batzuk zeuden, eta batzuek tipula baten antzeko sabaia zeukaten.

- Alfonbrak “bere” etxera ekarri gaitu, ez “gure” etxera –esan zuen Aiorak.



Aiorak esan bezala, alfonbrak Persiara eramán zituen anai-arrebak, “etxera” joateko esan baitzieten...

- Ederra egin dugu! –esan zuen Anartzek–, eta orain zer?
- Orain? Bilboko alfonbra dendara joateko esango diogu eta hara eramango gaitu –esan zuen Aiorak.

Baina ez zuten ezer egiteko denborarik izan. Ezertan hasi baino lehen, mutiko bat agertu zen alfonbrak lur hartu zuen etxe aurreko atarian. Azal iluneko mutil bat zen, betazal beltz handiak zituen eta txapel txiki bat zeraman buruan.

- Al-ha, ala-ra! Ala-ni, ala-re, ala-al, ala-fon, ala-bral

Aiora eta Anartz txundituta geratu ziren. Hasieran kosta egin zitzaien ulertzea zer esaten ari zen mutiko persiarra, baina gero konturatu ziren “hitzen” aurreko “ala” eta “al” haiek guztiak kenduz gero ulertzeko moduan hitz egiten zuela Persiako mutikoak.

- “Hara! Nire alfonbral esan du” –esan zion Anartzek Aiorari.
- Zaude lasai, “lixtoa”. Dagoeneko nik ere ikasi dut nola den hizkera xeibre hori –erantzun zion Aiorak.



Berriketan aritu ziren etxe txikiaren aurrean. Persiako mutikoak dozena bat urte edo horrela izango zituen eta, adierazi zenez, alfonbrak eginez irabazten zuen egunerokoa. Orduak eta orduak pasatzen zituen bere esku txikiekin koloretako hariei korapiloak eta korapiloak eginez, alfonbra dotoreak osatzeko.

Dariusek esplikatu zien bera ez zela eskolara joaten eta lan asko egiten zuela, asko, asko. Baina diru gutxi jaso. Lanaren etekina Nasim bere nagusiak eramaten zuela, ia osorik. Bera txanpon batzuekin bakarrik geratzen zela. Nazka-nazka eginda zegoela Nasim arraio harekin eta ez zekiela zer egin.

Horretan ari zirela, oihu batzuk entzun ziren, urrutitik zetozen oihu batzuk, eta Dariusek esan zuen bere nagusia zela, zeharo haserre, eta “alfonbra, alfonbra” oihukatuz zetorrela etxerantz.

- Ala-zer, al-e, ala-gin?
- Zer egin? Eseri atzean –esan zien Aiorak, eta hirurak eseri ziren alfonbra gainean: Aiora aurrean, Anartz ondoren eta Darius atzean.
- Eraman gaitzazu Bilboko alfonbra persiarren dendara –esan zuen Aiorak–. Goazen ziztu bizian!

Eta alfonbra gainean ziztu bizian etorri ziren hirurak. Persiatik Bilboko alfonbra dendaraino, tximista baino azkarrago.

- Non sartu zarete? –galdetu zien aita– Eta nor da mutiko beltzaran hori?
- Gero esplikatuko dizugu, aita –esan zion Aiorak Joanjori–. Orain alfonbra hau erosi behar duzu.

Joanjok alfonbra gorri-laranja erosi zuen, ondo ordainduta, hegalaria zenik sumatu ere egin gabe. Gero, neska-mutikoak berriketan ari ziren, eta denbora asko baino lehen, Dariusek bere ideia zein zen esan zien. Alfonbra hegalariekin mezulari eta gutun-partitzaile hasiko zen, eta Nasimentzat alfonbrak eginez baino diru gehiago irabaziko zuen horrela. Eskolara ere joango zen, denborarik geratzen bazitzaion...

Al-a, ala-gurl! –esan zuen Dariusek.

Alfonbraren gainean jarri zen, gero, eta etxerako bidea hartu zuen. Eta alfonbra ekialderantz abiatu zen. Dariusek agur egin zien eskuekin Aiora eta Anartzi, eta dendako ate zabaletik irtenda, zeruan galdu zen.

Joanjo gizajoa aho zabalik geratu zen.

- Orain nola esplikatu behar diot Marisari alfonbra gorri-laranja bat erosi dudala etxerako, baina zeruan hegan joan dela gainean mutiko beltzaran bat zuela...

J.M. Olaizola "Txiliku". Egokitua

1. Nola zegoen egongelako alfonbra?

- A. Berria
- B. Berri samarra
- C. Zaharkitua
- D. Zaharkitu samarra

2. Esan ezazu ondoko baieztapenak egia (E) edo gezurra (G) diren.

	E	
Anartzen ilea kizkurduna eta beltza da.		
Aiora Anartz baino zaharragoa da eta ile iluna du.		
Mutiko persiarrak denbora asko ematen zuen alfonbrak egiten.		
Dariusek diru asko irabazten zuen alfonbrak eginez.		

3. Zein zen Anartz eta Aioraren arteko adinaren aldea?

- A. Anartz bi urte gazteagoa zen.
- B. Anartz bi urte zaharragoa zen.
- C. Biak adin berekoak ziren.
- D. Anartz askoz gazteagoa zen.

4. Zergatik lagundu nahi zion Anartzek aitari alfonbra erosten?

- A. Alfonbrak oso gustuko zituelako.
- B. Aiorak lagunduko ziola entzun zuelako.
- C. Amak fabore hori eskatu ziolako.
- D. Beti horrela egiten zuelako.

5. Ordena itzazu pasarte hauek kronologikoki (1etik 4ra zenbatuz).

☐

Alfonbra gainean hirurak etorri ziren Persiatik Bilbora.

☐

Amak aita alfonbra eroatera bidali zuen.

☐

Azal iluneko mutiko persiar batekin elkartu ziren.

☐

Aiora eta Anartz alfonbra gorri-laranja baten gainean eseri ziren eta airean abiatu ziren.

6. Testuaren bukaeran aita kezkatuta agertzen zaigu. Zergatik uste duzu kezkatuta dagoela?

.....

.....

.....

7. Zer esan nahi du “tximista baino azkarrago” esaldiak?

- A. Lasterketa bat egin zutela eta tximistari irabazi ziotela.
- B. Larrabezutik Bilbora oso azkar joan zirela kotxez.
- C. Tximista azkarra dela.
- D. Ziztu bizian etorri zirela alfonbraren gainean.

8. Zertarako idatzi du egileak testu hau?

- A. Alfonbrak nolakoak diren aipatzeko.
- B. Irakurleek ipuineko abenturaz gozatzeko.
- C. Persian alfonbrak daudela jakinarazteko.
- D. Anartzen familiari buruzko deskribapena kontatzeko.

9. Dariusen bizitza aldatu egin zen Aiora eta Anartz ezagutu ondoren. Osatu ondoko taula 2 aldaketa adieraziz:

	Aiora eta Anartz ezagutu aurretik egiten zuen zerbait	Aiora eta Anartz ezagutu ondoren egiten zuen zerbait
1.		
2.		

10. Istorio honetako gertaera batzuk errealitatean gerta daitezke, eta beste batzuk ezin dira benetan gertatu. Aipa ezazu benetan gerta daitekeen pasadizo bat eta beste bat fantasiatzkoa:

Benetan gerta daitekeen pasadizoa	Fantasiatzko pasadizoa
.....	